

Haur Hezkuntzako hiru ikaslek bideo bat egin dute Nikaraguan izandako praktikaldiaz

2008/01/15

2007ko hasieran **Olatz Larrañaga, Maialen Guridi eta Iraide Akordarrementeria**, Haur Hezkuntza ikasten ari zirela HUHEZIn, Nikaraguara joan ziren bi hilabetez praktikak egitera. Paso Real izeneko komunitatean izan ziren, Diriambatik gertu, Carazoko departamentuan. Han ateratako argazkiekin bideo bat osatu dute, Nikaragua 07, eta sarean zintzilikatu, denon ikusgai.

Paso Real izeneko komunitatean ez zegoen ez argindarrik, ez eta edateko urik ere. Hala ere, "gauza material askorik agian ez zeukaten, baina beste zentzu batean gu baino aberatsago zirela erakusten ziguten egunak joan ahala" adierazi dute bideogileek, zeinek hartu baitzuten hango ludotekaren ardura.

Hirualdi bizi izan zituzten bi hilabete haietan. Hasieran lau haur joaten zitzaizkien, gero bederatzi, eta, amaieran, dezente gehiago. Izan zuten arazorik, baina elkarlanak lagundu zien oztopoak gainditzeko. Bueltan, esperientzia aberatsa eta argazki mordoa ekarri zuten. Horiek ikus daitezke orain beraiek egindako bideoan.

Berriro Nikaraguara

Olatz, Maialen eta Iraide **bigarren Diploma** egiten ari dira gaur egun, **Entzumena eta Mintzaira** espezialitatea. Aurtengo udan Nikaraguara itzultzeko asmoa dute, Paso Realeko lagunak agurtu eta orduan ikusi bako tokiak ezagutzeko asmoz.

